# Xedapen Orokorrak

**ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA**

**2381**

84/2009 DEKRETUA, apirilaren 21ekoa, Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordeari buruzkoa.

Familia Bitartekaritzako otsailaren 8ko 1/2008 Legeak, bere 10.1 artikuluan, Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordea eratzen du. Batzorde hori familia-bitartekaritzako eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren sailari atxiki zaio. Era berean, 10.3 artikuluan zehazten da zein zeregin dituen, eta 10.2 artikuluak xedatzen du ezen, aholkularitza emateko zeregina bermatzeko, aholku-batzorde horretako kide izango direla administrazio publikoetako ordezkariak, unibertsitateak, lanbide-elkargoak, familia-bitartekaritzaren arloan nahiz familiako kideen arteko gatazkei arreta profesionala emateko arloan diharduten erakunde esanguratsuak eta, arlo horrekin lotura izanik, beharrezko iritzitako profesional guztiak.

Azaldutako guztiagatik zehaztu beharra dago zein kide dituen Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordeak, bai eta zein dituen ere oinarrizko antolamendu-arauak eta funtzionamendu-araubidea, batzordea eratzeko eta legeak ematen dizkion zereginak normaltasunez garatzeko.

Ondorioz, Familia Bitartekaritzako otsailaren 8ko 1/2008 Legearen azken xedapenetako lehena garatzeko, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren adostasunarekin eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko apirilaren 21ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***1. artikulua.***– Helburua.

Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen antolaketa, osaera eta funtzionamendu-araubidea arautzea da dekretu honen helburua.

***2. artikulua.***– Izaera eta atxikimendua.

Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordea kontsulta-organoa da, eta familia-bitartekaritzako eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren sailari atxikita dago, baino ez dago Jaurlaritzari aholkularitza emateko hierarkia-egituran sartuta, Familia Bitartekaritzako otsailaren 8ko 1/2008 Legean ezarritako eskumenak eta atribuzioak erabiliz.

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES**

**2381**

DECRETO 84/2009, de 21 de abril, del Consejo Asesor de la Mediación Familiar.

La Ley 1/2008, de 8 de febrero, de Mediación Familiar, en su artículo 10.1, crea el Consejo Asesor de la Mediación Familiar como órgano colegiado de asesoramiento, adscrito al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de mediación familiar. Asimismo, se determina en su artículo 10.3 sus funciones y señala su artículo 10.2 que, con la finalidad de garantizar la función asesora, estará compuesto por representantes de las administraciones públicas, colegios profesionales, universidades, organizaciones representativas del ámbito de la mediación familiar y la atención profesional en conflictos entre miembros de una familia, y por cuantas personas profesionales vinculadas al área de la mediación familiar se consideren necesarias.

A la vista de lo expuesto es necesario detallar la composición del Consejo Asesor de la Mediación Familiar y determinar sus reglas básicas de organización y régimen de funcionamiento en aras a posibilitar su constitución y el normal desarrollo de las funciones que la Ley le encomienda.

En su virtud, en desarrollo de la disposición final primera de la Ley 1/2008, de 8 de febrero, de Mediación Familiar, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 21 de abril de 2008,

DISPONGO:

***Artículo 1***.– Objeto.

El objeto del presente Decreto es regular la organización, composición y régimen de funcionamiento del Consejo Asesor de Mediación Familiar.

***Artículo 2***.– Naturaleza y adscripción.

El Consejo Asesor de la Mediación Familiar es un órgano consultivo adscrito al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de mediación familiar pero no integrado en su estructura jerárquica para el asesoramiento al Gobierno en el ejercicio de las competencias y atribuciones establecidas en la Ley 1/2008, de 8 de febrero, de Mediación Familiar.

***3. artikulua.***– Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen zereginak.

Familia Bitartekaritzako otsailaren 8ko 1/2008 Legearen 10.3 artikuluan aurreikusita daude Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen zereginak.

***4. artikulua.***– Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen organoak.

Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordeak honako organo hauek izango ditu:

a) Taldekoak:

– Osoko bilkura

– Batzorde Iraunkor Delegatua

– Batzorde Tekniko Espezializatuak

b) Lagun bakarreko organoak:

– Batzordeburua

– Batzordeburuordea

– Idazkaria

***5. artikulua.***– Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen osoko bilkuraren osaera.

1.– Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen osoko bilkurak honako kide hauek ditu:

a) Batzordeburua: familia-bitartekaritzaren eskumena duen saileko burua.

b) Batzordeburuordea: familia-bitartekaritzaren eskumena duen sailburuordea.

c) Batzordekideak:

1) Familia-bitartekaritzaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaria.

2) Gutxienez zuzendari-maila izango duen pertsona bat, familia-arloaren eskumena duen sailaren ordezkaria izango dena, dagokion sailburuak izendatua.

3) Gutxienez zuzendari-maila duen izango duen pertsona bat, justizia-arloaren eskumena duen sailaren ordezkaria izango dena, dagokion sailburuak izendatua.

4) Foru-aldundien ordezkari bat, foru-aldundiek berek beren artean hitzartutako irizpideei jarraiki izendatua.

5) Eudel-Euskadiko Udalen Elkartearen ordezkari bat, elkarteak berak izendatua.

6) Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkari bat, unibertsitateak berak bere funtzionamendu-arauei jarraiki izendatua.

7) Unibertsitate publikoen ordezkari bat, presentzia eta onarpena izango duena, Euskal Unibertsitate Siste-

***Artículo 3.***– Funciones del Consejo Asesor de la Mediación Familiar.

Son funciones del Consejo Asesor de la Mediación Familiar las previstas en el artículo 10.3 de la Ley 1/2008, de 8 de febrero, de Mediación Familiar.

***Artículo 4.***– Órganos del Consejo Asesor de la Mediación Familiar.

El Consejo Asesor de la Mediación Familiar, estará integrado por los siguientes órganos:

a) Colegiados:

– Pleno

– Comisión Permanente Delegada

– Comisiones Técnicas Especializadas

b) Unipersonales:

– Presidente o Presidenta

– Vicepresidente o Vicepresidenta

– Secretario o Secretaria

***Artículo 5.***– Composición del Pleno del Consejo Asesor de la Mediación Familiar.

1.– El Pleno del Consejo Asesor de la Mediación Familiar, tiene la siguiente composición:

a) Presidente o Presidenta: el Consejero o Consejera titular del departamento competente en materia de mediación familiar.

b) Vicepresidente o Vicepresidenta: el Viceconsejero o Viceconsejera competente en materia de mediación familiar.

c) Vocales:

1) El Director o Directora que tenga atribuida la competencia en materia de mediación familiar del Gobierno Vasco.

2) Una persona con rango mínimo de Director/a en representación del departamento competente en materia de familia, designado por el respectivo Consejero titular.

3) Una persona con rango mínimo de Director/a en representación del departamento competente en materia de justicia, designado por el respectivo Consejero titular.

4) Una persona en representación de las Diputaciones Forales, designada por las mismas de acuerdo con los criterios entre ellas establecidos.

5) Una persona en representación de Euskadiko Udalen Elkartea-Asociación de Municipios Vascos (Eudel), designada por la misma.

6) Una persona en representación de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, designada por la misma de acuerdo con sus propias normas de funcionamiento.

7) Una persona en representación de las universidades privadas con presencia y reconocimiento en virtud

maren otsailaren 25eko 3/2004 Legea betez, lege horretan ezarritako irizpideei jarraiki izendatuko dutena.

8) Arlo horretako lanbide-elkargoen bi ordezkari, elkargoek berek beren artean hitzartutako irizpideei jarraiki izendatuak.

9) Familia-bitartekaritzaren arloan nahiz familiako kideen arteko gatazkei arreta profesionala emateko arloan diharduten erakunde esanguratsuak diren erakundeen hiru ordezkari, erakundeek berek izendatuak.

d) Idazkaria: Batzordeburuak familia-bitartekaritzaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzako langileen artean hautatutako pertsona bat. Pertsona horrek hitz egiteko eskubidea izango du, baina ezingo du botorik eman.

2.– Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen buruak batzordean aztertzen diren gaietan adituak diren pertsonek bileretan parte hartzeko baimena eman dezake. Pertsona horiek hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ezingo dute botorik eman.

3.– Batzordekide bakoitzak ordezko bat proposatu beharko du, titularra joaten ez denean, postu hori hutsik dagoenean edo titularra gaixorik dagoenean, haren ordez jardungo duena.

***6. artikulua.***– Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen kideen izendapena eta agintaldia.

1.– Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen kideak familia-bitartekaritzaren eskumena duen sailburuaren aginduz izendatuko dira, beren kargua dela-eta batzordekide direnak izan ezik.

2.– Beren kargua dela-eta Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen kide diren horiek beren kargua besterik gabe utziko dute, baldin eta izendatzeko arrazoia izan zen kargua galtzen badute.

3.– Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen organoetako kideak izendatzeko orduan, ahaleginak egingo dira gizon eta emakume kopurua berdintsua izan dadin, eta gizon-emakume horiek prestakuntza, gaitasun eta trebakuntza egokiak izan ditzaten, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 23. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

4.– Batzordearen osoko bilkuraren kideen agintaldiena, salbu eta beren kargua dela-eta kide direnena, hiru urtekoa izango da, eta beren agintaldia bukaturik, iraupen berbereko aldietarako hautatu ahal izango dira berriro. Adierazitako epea igaro ondoren, kideek beren eginkizunak betetzen jarraituko dute, beren ondorengoen izendapenak ondorioak izan arte.

5.– Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordeko kideen agintaldia honako kasu hauetan amaitu ahal izango da iraunaldia amaitu aurretik:

de Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco designada conforme a los criterios entre ellas establecidos.

8) Dos personas en representación de los Colegios Profesionales vinculados a esta área, designadas conforme a los criterios entre ellos establecidos.

9) Tres personas en representación de las organizaciones representativas del ámbito de la mediación familiar y la atención profesional en conflictos entre miembros de una familia, designadas por las mismas.

d) Secretario o Secretaria: la persona designada por la Presidencia entre el personal adscrito a la Dirección del Gobierno Vasco competente en materia de mediación familiar, que actuará con voz pero sin voto.

2.– El Presidente o Presidenta del Consejo Asesor de la Mediación Familiar podrá autorizar la presencia en sus sesiones, o en parte de ellas, de personas especializadas en los temas que fueren objeto de tratamiento en las mismas, que en todo caso actuarán con voz y sin voto en el tema o temas que fundamentan su presencia.

3.– Por cada uno de los y las vocales deberá proponerse una persona suplente, que sustituirá a la titular en caso de ausencia, vacante o enfermedad.

***Artículo 6.***– Nombramiento y mandato de los vocales del Pleno del Consejo de la Mediación Familiar.

1.– El nombramiento de las y los vocales del Consejo Asesor de la Mediación Familiar, salvo el de aquellos o aquellas que lo sean por razón de su cargo, se efectuará por Orden del Consejero o Consejera titular del Departamento competente en materia de mediación familiar.

2.– Aquellas o aquellos vocales del Consejo Asesor de la Mediación Familiar que lo fueran por razón de su cargo, cesarán automáticamente con la pérdida de la condición en virtud de la cual fueron nombrados o nombradas.

3.– En el nombramiento y designación de las personas que han de formar parte de los órganos del Consejo Asesor de Mediación Familiar se promoverá una presencia equilibrada de mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuadas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 23 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

4.– El mandato de las y los vocales del Pleno del Consejo, salvo el de los o las que lo sean por razón de su cargo, será de tres años, pudiendo ser reelegidas por periodos de igual duración al término de su mandato. Una vez transcurrido el plazo referido, continuarán desempeñando sus funciones hasta que surta efecto el nombramiento de sus sucesores o sucesoras.

5.– El mandato de las y los vocales del Consejo Asesor de la Mediación Familiar expirará antes de la finalización del período de duración de su cargo en los siguientes supuestos:

a) Ezestea edo bertan behera geratzea, izendapenaren ardura duen erakundearen erabakiz.

b) Karguagatik izendatutako kideen kasuan, izendatzeko arrazoia izan zen kargua galtzen denean.

c) Uko egitea, osoko bilkuraren lehendakariari aurkeztuta.

d) Hiltzea edo bere jarduera gauzatzea ezinezko egiten duen gaixotasunen bat izatea.

e) Epaileak kargu publikoak betetzeko gaitasungabetzea edo eginkizungabetzea dakarren ebazpen judizial edo administratibo irmoa hartzen duenean.

6.– Aurreko paragrafoan esandako arrazoietakoren baten ondorioz gertatzen diren hutsuneak hilabeteko epean beteko dira, Batzordearen idazkariari egoera horren berri ematen zaionetik hasita, harik eta ordezkatua den pertsonaren agintaldia bukatu arte.

***7. artikulua.***– Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen osoko bilkuraren kideen eskubideak eta betebeharrak.

1.– Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen osoko bilkuraren kideek honako eskubide hauek dituzte:

a) Hitzarekin parte hartzea, botoa emateko eskubideaz baliatzea, kide anitzeko organoen bilkuretan boto partikularra ematea, eta botoaren esanahia eta arrazoiak adieraztea.

b) Beharrezko informazioa lortzea esleitutako eginkizunak betetzeko.

c) Kide duten kide anitzeko organoen bilera baterako ezohiko deialdia eskatzea.

d) Proposamenak eta iradokizunak aurkeztea gai-zerrendan sartzearren edo kide duten kide anitzeko organoetan erabakiak hartzearren, edo gai jakin bat aztertzearren.

e) Osoko bilkuraren aginduz joaten diren ekitaldietan Batzorde Iraunkor Delegatua edo Batzorde Tekniko Espezializatua ordezkatzea; nolanahi ere, batzordeburuak du ordezkaritza-esleipen nagusia.

f) Bilkuretarako deialdiaren eta gai-zerrendaren berri izatea organo bakoitzerako Araudi honetan ezarritako aurrerapenaz, eta gai-zerrendan agertzen diren gaiei buruzko dokumentuak, informazioa eta aurreko bilkurako akta izatea.

g) Eskaerak eta galderak egitea.

h) Batzordearen saioetara joateagatik konpentsazio ekonomikoa jasotzea. Konpentsazio hori bateragarria izango da egiten diren bilkuretan parte hartzeak edo horietara joateak eragin ditzakeen bidaiei dagozkien kalte-ordainekin. Bertaratzeagatiko konpentsazioak nahiz bidaiei dagozkien kalte-ordainak zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993

a) Revocación o cese acordado por la organización responsable de la designación.

b) Pérdida de la condición en virtud de la cual fue nombrado, en aquellas o aquellos miembros que lo fueran por razón de su cargo.

c) Renuncia, presentada ante el Presidente o Presidenta del Pleno.

d) Fallecimiento o enfermedad que imposibilitare desarrollar su actividad.

e) Resolución firme, de carácter judicial o administrativa, que conlleve la inhabilitación o suspensión para cargos públicos.

6.– Las vacantes que se produjeran por cualquiera de las causas anteriores serán cubiertas en el plazo de un mes desde que se comunique tal circunstancia a la Secretario o al Secretario y por el tiempo que reste de mandato de la persona a quien sustituya.

***Artículo 7.***– Derechos y deberes de las y los miembros del Pleno del Consejo de la Mediación Familiar.

1.– Cada miembro del Pleno del Consejo Asesor de la Mediación Familiar tiene los siguientes derechos:

a) Participar con voz, ejercer su derecho al voto y formular su voto particular en las sesiones de los órganos colegiados, así como expresar el sentido de su voto y los motivos que lo justifican.

b) Obtener la información precisa para cumplir las funciones asignadas.

c) Solicitar la convocatoria, con carácter extraordinario, de los órganos colegiados de los que forman parte.

d) Presentar propuestas y sugerencias para su inclusión en el orden del día, así como para la adopción de acuerdos en los órganos colegiados de los que formen parte, o para el estudio de una determinada materia.

e) Ostentar, en cuantos actos hayan sido comisionados por el Pleno, por la Comisión Permanente Delegada o por Comisión Técnica Especializada de que es miembro, la representación del respectivo órgano, sin perjuicio de la atribución general de representación que corresponde al Presidente o Presidenta.

f) Conocer con la antelación que se señale para cada órgano en el presente Reglamento la convocatoria y el orden del día de las sesiones y tener a su disposición los documentos e información sobre los temas que figuren en ellos, así como el acta de la sesión anterior.

g) Formular ruegos y preguntas.

h) Percibir una compensación económica en concepto de asistencia a reuniones del Consejo que será compatible con las indemnizaciones correspondientes a los desplazamientos que pueda originar la participación o concurrencia a las mismas. Tales compensaciones por asistencia así como las indemnizaciones por desplazamiento percibirán en las condiciones, cantidades

Dekretuan eta aurrerago egingo diren aldaketetan aurreikusitako baldintzetan eta mugekin jasoko dira.

Batzordean sartu edo parte hartu beharra herri-administrazioan betetzen den karguak edo lanpostuak eragiten duenean, ez da ezein kasutan diru kopururik jasoko.

2.– Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen osoko bilkuraren kideek honako betebehar hauek dituzte:

a) Beren kide anitzeko organoen bileretara joatea. Urte beraren barruan justifikatu gabe elkarren segidako bi bileratara edo bereizitako hiru bileratara joan ezean, kidea izendatu zuena kargutik kentzea proposatzeko komenigarritasuna aztertu beharko du nahitaez osoko bilkurak.

b) Organoan duen karguaren lanetan jarduterakoan erabiltzen diren agiri, eduki, erabaki eta informazioekin behar besteko zuhurtasunez eta erabateko pribatutasunez jokatzea, bai eta gerora ere, nahiz eta dagoeneko organo horretako kide ez izan.

c) Bidezko isiltasunarekin eta zuhurtziarekin jardutea, aztertzen diren gaien izaerak eskatzen duenean eta, bereziki, gai horiek ohore-eskubidea, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea eta norberaren irudirako eskubidea eraginpean hartzen dituztenean.

d) Dekretu honi eta, hala badagokio, dekretu hau garatzeko onartzen diren jarraibideei eta aginduei jarraiki jardutea.

***8. artikulua.***– Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen osoko bilkuraren eskumenak.

1.– Osoko bilkurak oso-osorik bereganatzen ditu Familia Bitartekaritzako otsailaren 8ko 1/2008 Legean Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordeari ematen zaizkion zereginak; horrek ez du esan nahi zeregin horiek Batzorde Iraunkor Delegatuaren esku utz ezin daitezkeenik.

2.– Horiez gain, honako eginkizun hauek bete behar ditu osoko bilkurak:

a) Batzordearen epe labur eta luzeko jarduera-ildoak ezartzea.

b) Batzorde Iraunkor Delegatua eratzea. Haren osaera eta zereginak dekretu honen 10. artikuluan ezarrita daude.

c) Batzorde Teknika Espezializatuak eratzea eta beren osaera, helburuak, funtzionamendu-arauak eta iraupena zehaztea.

d) Dekretu hau garatu eta aplikatzeko jarraibideak eta argibideak onartzea, Batzordeak funtzionatzeko beharrezkoak baitira.

e) Batzorde Iraunkorraren esku jartzea legez osoko bilkurari esklusiboki esleitu ez zaizkion atribuzioak.

y límites previstos con carácter general en el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio y en sus posteriores modificaciones.

En ningún caso se devengarán asistencias cuando la pertenencia o participación en el Consejo esté determinada por el cargo o puesto de trabajo que se ocupe en la Administración Pública.

2.– Cada miembro del Pleno del Consejo Asesor de la Mediación Familiar tiene los siguientes deberes:

a) Asistir a las sesiones de los órganos colegiados en cuya composición participen. La inasistencia no justificada a dos reuniones consecutivas o a tres discontinuas a lo largo del año será causa para que el Pleno examine preceptivamente la conveniencia de proponer el cese a quien designó al o a la vocal.

b) Actuar con la debida discreción y absoluta privacidad de los documentos, contenidos, deliberaciones e informaciones de los que se dispusiere en el ejercicio de la condición que se ostenta en el órgano, así como con posterioridad, una vez que se dejare de pertenecer a dicho órgano.

c) Actuar con el debido sigilo y reserva oportunos cuando así lo exija la naturaleza de los asuntos de que se traten y, especialmente, cuando afecten a los derechos al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen.

d) Actuar conforme al presente Decreto y a las directrices e instrucciones que, en su caso, se aprueben en desarrollo del mismo.

***Artículo 8***.– Competencias del Pleno del Consejo de la Mediación Familiar.

1.– El Pleno asume íntegramente las funciones atribuidas al Consejo Asesor de la Mediación Familiar en la Ley 1/2008, de 8 de febrero, de Mediación Familiar, sin perjuicio de la facultad de delegar las mismas en la Comisión Permanente Delegada.

2.– Corresponde también al Pleno conocer y adoptar acuerdos sobre las materias siguientes:

a) Establecer las líneas de actuación del Consejo a corto y largo plazo.

b) Constituir la Comisión Permanente Delegada cuya composición y funciones se establecen en el artículo 10 del presente Decreto.

c) Constituir Comisiones Técnicas Especializadas y establecer su composición, fines y normas de funcionamiento y duración.

d) Aprobar las directrices e instrucciones que, en desarrollo y aplicación de este Decreto sean precisas para el funcionamiento del Consejo.

e) Delegar en la Comisión Permanente aquellas atribuciones que no estén legalmente conferidas en exclusiva al Pleno.

f) Erabakia hartzea beren erabakien argitalpenaz.

g) Familia-bitartekaritzaren eskumena duen sailean jardueren urteko memoria onartu eta aurkeztea, bai eta familia-bitartekaritzak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi duen egoeraz dihardunena ere, biak ere Batzorde Iraunkor Delegatuak prestatu behar baitituzte.

h) Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Araudia prestatu, aldatu eta onartzea.

***9. artikulua.***– Osoko bilkuraren funtzionamendua.

1.– Batzordearen osoko bilkurak ohiko eta ezohiko bilerak egin ahal izango ditu, lehenengo edo bigarren deialdian.

2.– Batzordearen osoko bilkurak urtean birritan egin beharko du derrigor ohiko bilera. Aparteko neurri gisa, batzordeburuaren eskariz egin ahal izango da bilera, edo Batzorde Iraunkor Delegatuaren erabakiz, edo gutxienez osoko bilkuraren kideen heren batek idatziz hala eskaturik.

3.– Batzordeburuak egingo du osoko bilkurarako deialdia, zeina idatziz edo euskarri elektronikoz jakinaraziko baitzaie osoko bilkurako kide guztiei. Ohiko bilera bada, deialdia gutxienez bilera-eguna baino hamabost egun natural lehenago jakinarazi behar zaie kideei; ezohiko bilera bada, berriz, gutxienez bost egun baliodun lehenago jakinarazi behar zaie deialdia.

4.– Bilera non, noiz eta zein ordutan egin behar den adierazi behar da deialdian, eta bilerako aztergai-zerrenda ere aditzera eman behar da. Deialdiarekin batera, aztertu beharreko gaiei buruzko dokumentazio espezifikoa bidali behar da.

5.– Osoko bilkura balioz eratu ahal izateko, lehenengo deialdian gutxienez kideen erdiak beharko dira. Quorum hori lortzen ez bada, osoko bilkura bigarren deialdian eratu ahal izango da, lehenengo deialdirako finkatutako ordua baino hogeita hamar minutu geroago, eta balioz eratuta geratzeko, kideen herena beharko da.

6.– Batzarrak balioz egin ahal izateko, betiere batzordeburua, idazkaria edo haiek ordezkatzen dituztenak beharko dira.

7.– Erabakiak, txostenak, gomendioak eta gainerako testuak ontzat hartzeko, bertan diren kideen gehiengo soilaren aldeko botoa beharko da. Berdinketarik gertatuz gero, batzordeburuaren kalitatezko botoak erabakiko du.

8.– Botoa zuzenekoa, pertsonala eta besterenezina izango da. Botoa sekretua izango da, edozein kidek batzordeburuari hala izatea eskatzen badio.

9.– Osoko bilkuraren bilera bakoitzean akta bat egingo da; idazkariak emango du akta horren fede, eta batzordeburuaren oniritziak ere aktan agertu beharko du.

f) Decidir sobre la publicación de sus acuerdos.

g) Aprobar y presentar ante el Departamento competente en materia de mediación familiar la Memoria Anual explicativa de las actividades, así como de la situación de la mediación familiar en la Comunidad Autónoma del País Vasco, elaboradas por la Comisión Permanente Delegada.

h) Elaborar, modificar y aprobar el Reglamento de Funcionamiento del Consejo.

***Artículo 9.***– Funcionamiento del Pleno.

1.– El Pleno del Consejo podrá reunirse en sesiones de carácter ordinario y extraordinario, en primera o segunda convocatoria.

2.– El Pleno del Consejo se reunirá en sesión ordinaria, al menos dos veces al año. Con carácter extraordinario podrá reunirse a iniciativa de la Presidencia, por acuerdo de la Comisión Permanente Delegada, o a petición por escrito, de al menos un tercio de los miembros del Pleno.

3.– La convocatoria del Pleno se efectuará por Orden de la Presidencia respectiva y será dirigida por escrito o en soporte electrónico a todos las y los miembros correspondientes de aquél, con una antelación mínima de quince días naturales respecto a la fecha de la sesión a convocar si fuere ordinaria, o de cinco días hábiles si fuere extraordinaria.

4.– La convocatoria contendrá, junto con la indicación del lugar, fecha y hora de la reunión, el Orden del Día de la sesión y vendrá acompañada de la documentación específica sobre los asuntos a tratar.

5.– El Pleno quedará válidamente constituido cuando en primera convocatoria concurran al menos la mitad de sus miembros. Si no se alcanzase dicho quórum, el Pleno se podrá constituir en segunda convocatoria treinta minutos después de la hora señalada para la primera, y quedará válidamente constituido con la concurrencia de un tercio de sus miembros.

6.– La celebración válida de las sesiones requerirá, en todo caso, la presencia del Presidente o Presidenta y del Secretario o Secretaria, o de las personas que les sustituyan.

7.– Los acuerdos, informes, recomendaciones y demás textos, serán adoptados por el voto favorable de la mayoría simple de las y los miembros presentes. En caso de empate, decidirá el voto de calidad del Presidente o Presidenta.

8.– El sistema de votación responderá a los principios de voto directo, personal e indelegable, debiendo garantizarse el voto secreto cuando así lo solicite cualquier miembro a la Presidencia.

9.– De cada sesión del Pleno se levantará acta, bajo la fe del Secretario o Secretaria, y en la que figurará el visto bueno del Presidente o la Presidenta.

***10. artikulua.***– Batzorde Iraunkor Delegatuaren osaera eta zereginak.

1.– Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkor Delegatua osoko bilkuraren organo delegatua da, eta osoko bilkuraren kideek osatzen dute. Hain zuzen ere, honako kide hauek ditu:

a) Osoko bilkuraren lehendakaria, Batzorde Iraunkor Delegatuaren lehendakari ere izango dena, edo hura ez badago, osoko bilkuraren lehendakariordea.

b) Familia-bitartekaritzaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaria.

c) Kide bat, Foru Aldundiak ordezkatuz.

d) Kide bat, Eudel ordezkatuz.

e) Kide bat, unibertsitateak ordezkatuz.

f) Kide bat, lanbide-elkargoak ordezkatuz.

g) Kide bat, familia-bitartekaritzaren arloan nahiz familiako kideen arteko gatazkei arreta profesionala emateko arloan diharduten erakunde esanguratsuak ordezkatuz.

h) Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen idazkaria, zeregin hori beteko duena: hitz egiteko eskubidea izango du, baina ezin izango du botorik eman, Batzorde Iraunkor Delegatuaren bileretan.

2.– Batzorde Iraunkor Delegatuaren kideek eta osoko bilkuraren kideek eskubide eta betebehar berberak dituzte, dekretu honen 7. artikuluan jasota daudenak.

3.– Honako hauek dira Batzorde Iraunkor Delegatuaren zereginak:

a) Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen gaiak ohiz izapidetzea, osoko bilkurak bilerarik egiten ez badu.

b) Osoko bilkurari proposatzea Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen egutegiak eta jarduera-lehentasunak, eta betetzen direla zaindu (zeregin horren barruan sartu beharko litzateke Batzorde Tekniko Espezializatuen lana).

c) Batzordearen osoko bilkuraren saioak prestatzea, gai-zerrenda, beharrezko agiriak eta deialdi-eguna proposatuta.

d) Batzordearen jardueren urteko oroitidazki bat prestatzea, familia-bitartekaritzak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi duen egoeraz ere jardungo duena.

e) Osoko bilkuraren erabakiak betetzen direla zaintzea.

f) Osoko bilkurak eskatzen dizkion gaiak aztertu, izapidetu eta ebaztea.

***Artículo 10.***– Composición y funciones de la Comisión Permanente Delegada.

1.– La Comisión Permanente Delegada del Consejo Asesor de la Mediación Familiar es un órgano con carácter delegado del Pleno e integrada por miembros del Pleno, cuya composición es la siguiente:

a) El Presidente o Presidenta del Pleno, que lo será también de la Comisión Permanente Delegada o, en su ausencia, el Vicepresidente o Vicepresidenta del Pleno.

b) El Director o Directora que tenga atribuida la competencia en materia de mediación familiar del Gobierno Vasco.

c) Un o una vocal en representación de las Diputaciones.

a) Un o una vocal en representación de Eudel.

b) Un o una vocal en representación de las universidades.

c) Un o una vocal en representación de los Colegios Profesionales.

d) Un o una vocal en representación de las organizaciones representativas del ámbito de la mediación familiar y la atención profesional en conflictos entre miembros de una familia.

e) El Secretario o Secretaria del Consejo Asesor de Mediación Familiar, que actuará como tal, con voz pero sin voto, en las reuniones de la Comisión Permanente Delegada.

2.– Cada miembro de la Comisión Permanente Delegada tiene los mismos derechos y deberes que las y los miembros del Pleno, contenidos en el artículo 7 del presente Decreto.

3.– Corresponden a la Comisión Permanente Delegada las siguientes funciones:

a) La tramitación ordinaria de los asuntos del Consejo Asesor de la Mediación Familiar, cuando no esté reunido el Pleno.

b) Proponer al Pleno los calendarios y prioridades de actuación del Consejo Vasco de la Mediación Familiar y hacer el seguimiento de su cumplimiento, incluyendo en este seguimiento el quehacer de las Comisiones Técnicas Especializadas.

c) Preparar las sesiones del Pleno del Consejo, proponiendo el orden del día y la documentación pertinente para su celebración, incluyendo asimismo la fecha de convocatoria.

d) Elaborar una memoria anual de las actividades del Consejo, así como de la situación de la mediación familiar en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

e) Velar por el cumplimiento de los acuerdos del Pleno.

f) Estudiar, tramitar y resolver cuantas cuestiones le sean encomendadas por el Pleno.

***11. artikulua.***– Batzorde Iraunkor Delegatuaren funtzionamendua.

1.– Batzorde Iraunkor Delegatuak, hiruhilean behin, ohiko bilera bat egin beharko du derrigor. Halaber, bilera bereziak honako kasu hauetan egin ditzake:

a) Batzordeburuak hala eskatzen badu.

b) Gutxienez kideen heren baten eskariz.

2.– Batzordeburuak egingo du Batzorde Iraunkor Delegatuaren deialdia, zeina idatziz edo euskarri elektronikoz jakinaraziko baitzaie kide guztiei. Ohiko bilera bada, deialdia gutxienez bilera-eguna baino lau egun natural lehenago jakinarazi behar zaie kideei; bilera berezia bada, berriz, gutxienez bi egun baliodun lehenago jakinarazi behar zaie deialdia.

3.– Bilera non, noiz eta zein ordutan egin behar den adierazi behar da deialdian, eta bilerako aztergai-zerrenda ere aditzera eman behar da. Deialdiarekin batera, aztertu beharreko gaiei buruzko dokumentazio espezifikoa bidali behar da.

4.– Batzorde Iraunkor Delegatua balioz eratu ahal izateko, lehenengo deialdian gutxienez kideen erdiak beharko dira. Quorum hori lortzen ez bada, Batzorde Iraunkor Delegatua bigarren deialdian eratu ahal izango da, lehenengo deialdirako finkatutako ordua baino hogeita hamar minutu geroago, eta balioz eratuta geratzeko, kideen herena beharko da.

5.– Batzarrak balioz egin ahal izateko, betiere batzordeburua, idazkaria edo haiek ordezkatzen dituztenak beharko dira.

6.– Bildutako kideen gehiengo soilaren aldeko botoaz hartuko dira Batzorde Iraunkor Delegatuaren erabakiak. Berdinketarik gertatuz gero, batzordeburuaren kalitatezko botoak erabakiko du.

7.– Bilera bakoitzean akta bat egingo da; idazkariak emango du akta horren fede, eta batzordeburuaren oniritziak ere aktan agertu beharko du.

***12. artikulua.***– Batzorde Tekniko Espezializatuak.

1.– Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen erabakiaren bidez, batzorde tekniko espezializatuak osa daitezke tratamendu espezifikoa eskatzen duten gai jakin batzuetan.

2.– Batzorde tekniko espezializatuen osaera, helburuak, funtzionamendu-arauak eta iraupena Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen osoko bilkuraren eskumen izango dira. Osoko bilkurak dagokion eratze-erabakia hartuko du.

***Artículo 11.***– Funcionamiento de la Comisión Permanente Delegada.

1.– La Comisión Permanente Delegada se reunirá en sesión ordinaria preceptivamente una vez cada trimestre natural del año. Asimismo, podrá reunirse con carácter extraordinario en alguno de los siguientes supuestos.

a) A instancia de su Presidente o Presidenta.

b) Cuando así lo soliciten al menos un tercio de sus miembros.

2.– La convocatoria de la Comisión Permanente Delegada se efectuará por su Presidente o Presidenta y será dirigida por escrito o en soporte electrónico a todos sus miembros con una antelación mínima de cuatro días naturales respecto a la fecha de la sesión a convocar si fuere ordinaria, o de dos días hábiles si fuese extraordinaria.

3.– La convocatoria contendrá, junto con la indicación del lugar, fecha y hora de la reunión, el Orden del Día de la sesión y vendrá acompañada de la documentación específica sobre los asuntos a tratar.

4.– La Comisión Permanente Delegada quedará válidamente constituida cuando en primera convocatoria concurran al menos la mitad de sus miembros. Si no se alcanzase dicho quórum, la Comisión Permanente Delegada se podrá constituir en segunda convocatoria treinta minutos después de la hora señalada para la primera, y quedará válidamente constituida con la concurrencia de un tercio de sus miembros.

5.– La celebración válida de las sesiones requerirá, en todo caso, la presencia del Presidente o Presidenta y del Secretario o Secretaria, o de las personas que les sustituyan.

6.– Los acuerdos de la Comisión Permanente Delegada se adoptan por el voto favorable de la mayoría simple de las y los miembros presentes. En caso de empate, decidirá el voto de calidad del Presidente o Presidenta.

7.– De cada sesión se levantará acta, bajo la fe del Secretario o Secretaria, y en la que figurará el visto bueno del Presidente o Presidenta.

***Artículo 12.***– Comisiones Técnicas Especializadas.

1.– Mediante acuerdo del Pleno del Consejo Asesor de la Mediación Familiar pueden constituirse Comisiones Técnicas Especializadas en determinadas materias que requieran un tratamiento específico.

2.– La composición, fines, normas de funcionamiento y duración de las Comisiones Técnicas Especializadas son competencia del Pleno del Consejo Asesor de la Mediación Familiar, que adoptará el correspondiente acuerdo de constitución.

***13. artikulua.***– Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen lehendakaritza.

1.– Familia-bitartekaritzaren eskumena duen saileko buruak izango du Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen lehendakaritza.

2.– Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen buruak honako eskumen hauek ditu:

a) Batzordearen izenean aritzea.

b) Batzordearen jarduerak zuzentzea.

c) Osoko bilkuraren eta Batzorde Iraunkorraren bileretarako deialdia egitea eta bilera horiek zuzentzea, bilerak behar bezala egiteko jarraibide orokorrak lantzea, eta eztabaidak moderatzea.

d) Osoko bilkuraren eta Batzorde Iraunkorraren bileren gai-zerrenda egitea.

e) Bere sinadurarekin bilkuren aktak berrestea, erabakien igorpena eta argitalpena agintzea, eta bete daitezen xedatzea.

f) Batzordearen izenean erakundeetara, organismoetara, elkarteetara, agintariengana eta partikularrengana jotzea.

g) Dekretu hau bete eta betearaztea, osoko bilkurari bere interpretazioa proposatuz zalantzazko kasuetan, eta integrazioa adierazi gabekoetan.

***14. artikulua.***– Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen lehendakaritzaren ordezkapen-araubidea.

Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen buruaren plaza hutsik bada edo zuzendaria kanpoan edo gaixorik dagoenean, haren ordezkoa Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen buruordea izango da, edo bestela, familia-bitartekaritzaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren zuzendaria.

***15. artikulua.***– Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen Idazkaritza.

1.– Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen, osoko bilkuraren eta Batzorde Iraunkor Delegatuaren Idazkaritza familia-bitartekaritzaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzako langile batek izango du, eta langile hori batzordeburuak izendatuko du.

2.– Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen idazkariak honako eskumen hauek ditu:

a) Batzordearen eta bere komisioen saioetako gai-zerrendak eta saio horietan aztertu beharreko gaiei buruzko agiriak prestatu eta bideratzea.

b) Batzordeburuaren aginduz, Batzordearen bileretarako deiak egitea.

***Artículo 13.***– Presidencia del Consejo Asesor de la Mediación Familiar.

1.– La Presidencia del Consejo Asesor de Mediación Familiar corresponderá al Consejero o Consejera del Departamento competente en materia de mediación familiar.

2.– El Presidente o Presidenta del Consejo Asesor de Mediación Familiar tiene atribuidas las siguientes competencias:

a) Ostentar la representación del Consejo.

b) Dirigir las actuaciones del Consejo.

c) Convocar y presidir las sesiones del Pleno y de la Comisión Permanente, elaborar las directrices generales para el buen gobierno de las mismas y moderar el desarrollo de los debates.

d) Formular el orden del día de las sesiones del Pleno y de la Comisión Permanente.

e) Refrendar con su firma las actas de las sesiones, ordenar la remisión, publicación de los acuerdos, y disponer su cumplimiento.

f) Dirigirse en nombre del Consejo a instituciones, organismos, entidades, asociaciones, autoridades y particulares.

g) Cumplir y hacer cumplir el presente Decreto, proponiendo al Pleno su interpretación en los casos de dudas y su integración en los de omisión.

***Artículo 14.***– Régimen de suplencia de la Presidencia del Consejo Asesor de la Mediación Familiar.

En los supuestos de vacante, ausencia o enfermedad de la Presidencia del Consejo Asesor de la Mediación Familiar, será sustituido por el Vicepresidente o Vicepresidenta del Consejo Asesor de la Mediación Familiar, y en su defecto, por el Director o Directora del Gobierno Vasco que tenga atribuida la competencia en materia de mediación familiar.

***Artículo 15.***– Secretaría del Consejo Asesor de la Mediación Familiar.

1.– La Secretaría del Consejo Asesor de Mediación Familiar, del Pleno y de la Comisión Permanente Delegada, corresponde a una persona entre el personal adscrito a la Dirección del Gobierno Vasco competente en materia de mediación familiar, designada por la Presidencia.

2.– El Secretario o Secretaria del Consejo Asesor de Mediación Familiar tiene atribuidas las siguientes competencias:

a) Preparar y cursar el orden del día de las sesiones del Consejo y sus Comisiones, así como la documentación necesaria para relativa a los asuntos que hayan de tratarse en las mismas.

b) Efectuar la convocatoria de las sesiones del Consejo, por orden de la Presidencia.

c) Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen kideen esku jartzea gai-zerrendako gaiak lantzeko behar diren agiriak edo gai horiek lantzeko egoki ikusten diren agiriak.

d) Osoko bilkuraren eta batzorde iraunkor delegatuen bileretara joatea –hitz egiteko bai, baina botoa emateko eskubiderik gabe-, eta bileren akta egitea.

e) Kideek zein hirugarren batzuek Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordeari aurkeztu nahi dizkioten gai, txosten eta agiri guztiak bildu eta prestatzea, eta horiek guztiak bideratzea dagokien eran.

f) Irizpen, akta edo erabakien ziurtagiriak ematea, batzordeburuaren oniritzia dutenak.

g) Espedienteak, bere kargura dagoen artxiboa eta dokumentuen sarrerako eta irteerako erregistroa antolatu eta zaintzea, eta organoen eta kideen eskura jartzea, hori eskatzen zaionean.

h) Batzordearen jarduerak azaltzen dituen urteko oroitidazkia lantzeko behar diren datu guztiak ematea.

i) Batzordeburuak agintzen dizkion edo bere karguari datxezkion kudeaketako eta koordinazioko zeregin guztiak betetzea.

3.– Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen idazkariaren plaza hutsik badago edo idazkaria kanpoan edo gaixorik dagoenean, haren ordezkoa Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordearen buruak izendatuko du familia-bitartekaritzaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzako langileen artean.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordeak osatu ahal izango ditu dekretu honetan ezarritako jarduera-arauak.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Dekretu honetan ezarrita ez dauden kontuetarako eta Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordeak onar ditzakeen funtzionamendu-araueta-rako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. tituluko II. kapituluan kide anitzeko organoentzat xedatutakoa bete beharko da.

c) Poner a disposición de las y los miembros del Consejo Asesor de Mediación Familiar cuantos documentos sean necesarios para tratar los asuntos incluidos en el orden del día u otros que se consideren adecuados para tratar estos asuntos.

d) Asistir a las sesiones de Pleno y de las Comisiones Permanentes Delegadas -con voz y sin voto- levantando acta de las mismas.

e) La recepción y preparación de todos los asuntos, informes y documentos que se deseen presentar al Consejo Asesor de Mediación Familiar, tanto por sus miembros como por terceras personas, dando a todos ellos la tramitación que proceda.

f) Expedir certificaciones -con el visto bueno del Presidente o Presidenta- de los dictámenes, actas y acuerdos adoptados.

g) Organizar y custodiar los expedientes y el archivo a su cargo, así como el registro de entrada y salida de documentos, poniéndolo a disposición de sus órganos y miembros cuando le sea requerida.

h) Facilitar todos los datos que sean necesarios para la elaboración de la memoria anual explicativa de las actividades del Consejo.

i) Cuantos actos de gestión y coordinación le sean encomendados por el Presidente o Presidenta, o sean inherentes a su condición.

3.– En los casos de vacante, ausencia o enfermedad del Secretario o Secretaria del Consejo Asesor de Mediación Familiar, el Presidente o Presidenta del Consejo Asesor de Mediación Familiar nombrará a la persona que le sustituya entre el personal adscrito a la Dirección del Gobierno Vasco competente en materia de mediación familiar.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

El Consejo Asesor de la Mediación Familiar podrá completar las normas de funcionamiento establecidas en el presente Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– En todo lo no dispuesto en el presente Decreto y en las normas de funcionamiento que, en su caso, apruebe el Consejo Asesor de la Mediación Familiar será de aplicación lo establecido para los órganos colegiados en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Bigarrena***.– Aldatu egiten da azaroaren 15eko 375/2005 Dekretuaren 2.c) artikulua. Dekretu horren bidez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen da; eta 14. puntua eransten zaio sailari atxikitako eta/edo lotutako organoen zerrendari. Aurrerantzean honela idatziko da:

«14.– Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordea, Familia Bitartekaritzako otsailaren 8ko 1/2008 Legearen bidez sortua».

***Hirugarrena***.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko apirilaren 21ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

***Segunda***.– Se modifica el artículo 2.c) del Decreto 373/2005, de 15 de noviembre, por el que se establece la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales añadiéndose el punto 14 a la relación de órganos adscritos y/o vinculados al departamento que en lo sucesivo quedará redactado como sigue:

«14.– Consejo Asesor de la Mediación Familiar, creado por Ley 1/2008, de 8 de febrero, de Mediación Familiar».

***Tercera***.– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 21 de abril de 2009.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.